



A eredua

IRAKASLEEN HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK

HE2
(C1 maila)

PROBA IDATZIA

- Proba honek hiru ariketa ditu: 1) Irakurmena 2) Idazlan luzea 3) Idazlan laburra
- Denbora: **3 ordu.**

A eredu

1.- IRAKURMENA

Hutsuneei dagozkien erantzunak bilatu azpiko aukeren artean eta bete erantzun-orria.

Skinner-en usoak

B.F. Skinner (1904-1990) psikologo amerikarrak usoak ikertu zituen garunaren oinarriko mekanismoak aztertzeko. Haren aurkikuntzarik sonatuena honela burutu zuen: usoak kaiolatan sartu eta janari-aleak automatikoki makina baten bidez askatzen hasi zen. Aleak modu erregularrean zein zoriz askatuta, usoek jokabide bitxiak garatzen zituzten. Kasualitatez uso batek hegoak zabaltzeko unean erori zela alea? Usoa hegoak zabaltzen hasten zen, eta, noski, azkenean beste ale bat erortzen zen. Horrek usoaren jokabidea indartu egiten zuen, eta hegoak zabaltzeko "teknika" ustez gero eta hobeak garatzen zituen; nolabait makina aleak askatzera behartu nahirik edo. Skinnerren ustez, esperimendu hark azaltzen zuen nola sortzen den sineskeria.

Animaliok patroien bila (...1...) beti, gure biziraupenerako garrantzitsua baita. Tamalez, patrioiak aurkitu nahi horrek, inolako patrioirik ez denean ere, (...2...) aurkitzera garamatza, alegia, gure burua engainatzera. Eta Skinnerren usoak bezala ibiltzeko (...3...) dugu, euriaren dantza eginez batzuk, terapia alternatiboetan besteak; guztiak, usoak bezala, (...4...) funtzionatu egiten duela konbentzitu.

Duela gutxi telebistan ikusia: Galiziako arrantza bat kazetariari azaltzen nola harrapatzen den (...5...). Behin uretatik aterata, garrantzitsuena arroken kontra kolpatzea (...6...), gainerakoan oso gogor geratzen baita haren haragia. Kolpatze horretan, (...7...) handia jarri behar omen da: kolpe-kopuru bakoitia eman behar zaio, inoiz ez bikoitia. 13 edo 15 kolpe emanda, (...8...) geratzen da; 12 edo 16 emanda, berriz, gogor-gogor. (...9...) osoa olagarrotan eman duenak ongi baino hobeki daki zer eta nola egin behar den.

Nik ez dut inoiz olagarrik harrapatu, (...10...) harrien kontra kolpatu, baina, nire aburuz, jokabide horrek ez du, ez hankarik, eta ez bururik, eta arrantza hori Skinnerren usoen (...11...) dabilela uste dut, eraginik ez den tokian eragina ikusi nahirik. (...12...) kontrakoaz konbentzitu nahi banau, erakuts diezadala mekanismo posible bat, edo ongi egindako esperimendu bat. Hala ere, zenbat aldiz ez (...13...) ditugu ikusten gisa horretako sineskeriak?

Euskal Herrian berriro (...14...) hartzen ari den kontu bat ilargiarena da, askok uste baitute ilargialdiak kontuan hartu behar direla, eta ez (...15...) baserri-munduan. Horretaz ustez zerbait dakienak kontatuko dizu (...16...) ilberrian egin behar dela, orduan baitaude enborrak (...17...). Bai, badakit Ilargiak sortzen dituela mareak, baina badakit, baita ere, Ilargiaren erakarpen grabitatorioa Lurrarena baino hamar miloi aldiz txikiagoa dela gurean, eta, beraz, nekez markatu (...18...) horrek alderik enbor batek duen ur-kantitatean. Are gehiago, badakit, landareek ura eskuratzeko duten (...19...) (haien potentzial hidrikoa) lurraren eta airearen hezetasunarekin lotuta dagoela, eta horrek egun (...20...) batean askoz diferentzia handiagoa eragin dezakeela Ilargiaren (...21...) grabitatorioak hilabete osoan baino. Gainera, uraren kontu hori horren nabarmena balitz, zuhaitzek ez ote lukete ilberrian zimeldu eta ilbetean (...22...) behar? Zerbait ez du kontuan hartu? Onena, "adituei" galdetzea.

Ilargiaren eraginaz asko omen dakien norbaitekin hitz egin, eta gauza gero eta sinesgaitzagoa egiten da. Lehenik, goian aipatu dudana (...23...) soilik hosto-ertza leuna duten zuhaitzentzat omen, esaterako pagoentzat. Haritzentzat eta hark bezala hosto-ertza zerratua dutenentzat, berriz, ilbehera omen garairik onena. (...24...) leuna eta zerratua duten espezieen zerrenda egiten saiatu naiz hainbat aditurekin, baina horiek bat etorri ez! (...25...) leuna, eta, beraz, ilberrian moztu beharrekoa dena, bestearentzat zerratua eta ilbeherakoa da. Eta oraindik ez dut aurkitu bere (...26...) zalantza-izpirik zuenik.

Baina segi dezagun aurrera. Edozein adituk azalduko dizunez, Ilargiak sekulako eragina du, ez soilik egurketarako. (...27...) erein edo landatzeko, ilea mozteko, gorotza zabaltzeko, zeria hiltzeko eta eguneroko beste hainbat lanetarako kontuan hartzen ez baduzu, (...28...) ikustekoa zara. Agian, horregatik (...29...) zitzaidan niri kaskoa, agian horregatik soiltzen hasi...

Kasu horietan, Ilargiaren erakarpen grabitatorioarekin, mareekin edo nahi duzunarekin izan (...30...) loturak gero eta ilunagoak dira. Baina, adituek, behin eta berriz, baietz, sekulakoa dela eragina. Eta halako batean ikasiko duzu, aditurik (...31...) esanda, badela beste gauza bat oso kontuan hartzeko egurketarako, alorrerako, ilea mozteko, gorotza zabaltzeko zein zeria hiltzeko: ez ezazu sekula ahaztu ostiralak Ilargia (...32...) duela, alegia, ilberrian egon arren ostirala bada ilbehera balitz bezala funtzionatzen duela. Argi eta garbi, zalantzarik gabe, eta guztiak kontatuko dizute, gainera, (...33...) bete ez zuten kasu batean nola usteldu zitzaizen egurra, (...34...) zabaldu baina landararik hazi ez, nola tejobu zen zerrikia, dena bota egin behar izan zutela. Eta ostiralen (...35...) horren arrazoia? Oso sinplea: Jesukristo ostiralez hil zuten.

Ilargiaren kontu horrek, garai bateko beste hainbat sineskeriak bezala, interes (...36...) handia izan du. Askok diote ohitura zahar horiei eusteak ez dakarrela inongo kalterik. Nire lagun bat, ordea, asper-asper egina dago gaur egun oraindik bere (...37...) Ilargiaren arabera antolatzearekin; baina esaiozu aitonari asteburu horretan beste plan bat duzula eta (...38...) zabalduko duzuela gorotza!

A eredua

Gauza batek kezkatzen nau: gure burua zeinen (...39...) engainatzen dugun ikusteak, ongi trebatutako jende modernoa ere nola erortzen den behin eta berriz sineskerian eta antizientifismoan. Erdi Aroan (...40...) zena gaur barkaezina iruditzen zait. Baina, tira, Skinnerren usoz beteta dugu mundua.

Arturo Elosegi, ELHUYAR 260. alea

1.- a) daramate b) gabiltza c) dabilta d) daramagu	2.- a) premiaz b) serioz c) gauzez d) ustez	3.- a) zoria b) modua c) arriskua d) gogoia	4.- a) haienak b) bereak c) denonak d) besteenak
5.- a) olagarroa b) sardina c) barboa d) amuarraina	6.- a) onena b) omen c) behin d) lepoan	7.- a) begi b) ofizio c) kontuz d) arreta	8.- a) guri-guri b) gorri-gorri c) zimel-zimel d) goxo-goxo
9.- a) Arratsalde b) Denboraldi c) Bizi d) Eskarmentu	10.- a) inoiz b) gutxiago c) zertan d) behin	11.- a) pare b) antza c) moduz d) bezala	12.- a) Adituek b) Skinnerrek c) Norbaitek d) Ezjakinak
13.- a) behar b) ote c) omen d) bide	14.- a) indarra b) egunekoa c) ospetsua d) zerikusia	15.- a) berriz b) aldiz c) soilik d) areago	16.- a) txerria b) egurra c) basoa d) hazia
17.- a) bustien b) luzeen c) politen d) idorren	18.- a) diezagukeela b) dezakeela c) ditzagula d) ditzakeela	19.- a) beharra b) joera c) lotura d) gaitasuna	20.- a) osoan b) berezi c) bakar d) kaxkar
21.- a) erakarpen b) ibilaldi c) jirabira d) iragarpen	22.- a) ihartu b) txertatu c) makaldu d) lerdendu	23.- a) ilberriarena b) ilgorarena c) ilbetearena d) ilargiarena	24.- a) Adar b) Hosto c) Enbor d) Itxura
25.- a) Askorentzat b) Bakarrarentzat c) Batzuentzat d) Batarentzat	26.- a) esanetan b) gogoetan c) sailkapenean d) iritzirako	27.- a) Kanean b) Alorrean c) Garitzan d) Eguzkitan	28.- a) izurriteak b) lehortekak c) gorriak d) miseriak
29.- a) urdinduko b) berdinduko c) luzatuko d) alaituko	30.- a) liratekeen b) zatekeen c) zituzten d) litezkeen	31.- a) okerrenak b) adituenak c) garrantzitsuak d) gailurrekoak	32.- a) aldarrikatzen b) bustitzen c) izendatzen d) aldatzen
33.- a) araua b) legedia c) esandakoa d) hitzartutakoa	34.- a) errautsa b) kimuak c) gorotza d) harriak	35.- a) pasarte b) kontu c) kapritxo d) lelokeria	36.- a) politiko b) etimologiko c) administratibo d) etnologiko
37.- a) errealitatea b) jokamoldea c) bizimodua d) pentsaera	38.- a) hurrengoan b) eskuarearekin c) arrapaladan d) nekez	39.- a) aldrebes b) aise c) ederki d) petral	40.- a) ohiturazkoa b) axolagabekeria c) ulertzekoa d) sineskeria

A ereduia

30.....

40.....

50.....

60.....

3.-IDAZLAN LABURRA

Gutxienez 150 hitz dituen idazlana egin behar duzu ondoko gaiari buruz.

Pintadak eskolan. Zuen eskolan pintadak agertu dira. Hainbat xenofoboak, gainera. Eskola-kontseiluko partaideak zarenez, prestatu idazki bat batzarrerako. **Hizpide hauek garatu behar dituzu:**

- Egoera deskribatu.
- Ikastetxearen araudia ezartzearen komenentzia
- Irtenbideak planteatu

Lined area for writing the response.

ERANTZUN ZUZENAK**HE1: Irakurmena (Skinner-en usoak)**

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
B	D	C	B	A	B	D	A	C	B

11	12	13	14	15	16	17	18	19	20
A	C	B	A	C	B	D	B	D	C

21	22	23	24	25	26	27	28	29	30
A	D	A	B	D	C	B	C	A	D

31	32	33	34	35	36	37	38	39	40
B	D	A	C	B	D	C	A	B	C